



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ERGOIEN

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-05	19:05	20:20

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agustin Lekuona eta Eneritz Arbelaitz			
Herritarrak:	Euskaraz: 7		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 3		Gizonezkoak: 4	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 2	51-65 urte: 2	>66 urte: 3

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Zinegotzien aurkezpena eta bileraren egitura azaldu da.
2020 urtea	2020ko egoera azaldu da. Covid-19aren eragina eta egindako lanak.
2021eko aurreikuspena	Landetxeko obrari dagokionez elizako pitzaduraren berri eman da. Neurketak egiten ari dira eta orain informazioa jasotzen ari gara obra nola jarraitu ikusteko.
Auzoa	Argiñene herribidean egingo den obra azaldu da. 100.000€-ko aurrekontua du. Obra koxkorra dela aipatu da. Auzolanean bideak egiten diren galdetu da. Erantzun da obra handiak ezin direla egin. Adibidez, Argiñeneko herribidearen konponketa konplexua da. Mantenu lanetarako edo zerbait sinplea egin nahi bada, garbiketak, konponketa txikiak, hitz egin daiteke. Arpide bidea: taxibusa pasatzea aipatu zen lehengo urtean eta "batxeak" abiadurarentzat jartzea. Aurten kunetak konpondu dira. Taxibusarena pleguetan sartu behar da eta datorren urtean berritu behar dira. Aztertuko da. Abiadurarentzat "batxeak" badaudela esan da, baina txikiegiak omen dira. Gainera Gurutzetik Ergoienera joateko ohitura hartu du jende askok.

Tornola kalean abiadurarentzat “batxeak” jartzea eskatzen da, baina ez da ezer jartzen. Aldundiaren errepidea da, Gi-3420 errepidea. Udan trafiko asko eta arrisku handiko eskapadak egoten dira. Eskaera hau betikoa da. Lurrean pintaketak egin ziren eta zerbait hobetu zen egoera, baina berriro oso arriskutsu dago.

Aiako Harria Parke Naturalaren seinalea falta da mendiko sarreretan. Asteburuetan jende asko sartzen da motoekin eta bizikletekin. Berez, Parke Naturala izanik ezingo lukete handik sartu. Erantzun da motordun ibilgailuek ezin dutela sartu, baina bizikletek bai. Beraz, parke naturalaren seinalea jarri beharko da hori adieraziz. Guztira sei bat seinale beharko lirateke sarrera guztietan jartzeko.

Telefono eta Internet konexioa: Pagolarreko antenaren inguruan galdetu da, hori erabiltzeko aukera egonez gero telefono/internet konexioa hobetuko bailitzateke Tornola auzoan. Wifiaren proiektua azaldu da eta martxan jartzeko dauden zailtasunak.

Basoko zuhaitzak erortzen ari dira, asko ustelduak daude. Argirik gabe geratu izan dira batzuk argindarraren posteak botatzen dituztelako, baita telefonorik gabe ere. Garbiketa lan hobea beharko litzateke.

Iberdrolakoak garbiketa batzuk egin ditu udan transformadorerako bidean eta gero guztia zikina utzi dute. Ezker-eskubi garbitu dute, baina lurra bera adarrez beteta utzi dute. Aurreko aldi batean garbi geratu zen eta ondo, baina oraingoan oso zikina geratu da.

Olatxetik Olaundittura igotzeko bidean, “cuesta de la muerte” delakotik, bidea zikina dago, ixten ari da. Garbiketa beharko luke, bidea mantentzeko.

Garate parean, Gi-3420 errepidean, abiadura handian pasatzen dira ibilgailuak. Horrez gain, batzuk karrerak eginez ibiltzen dira.

Asteburutan jendea mendira doa, konfinamendu ondoren askoz gehiago. Ondorioz, kotxe gehiago dabilta Ergoienen. (Gi-3420)

Oiartzungo periferia guztian abiadura arazoa (Gurutzeroa, Artikutzara, Lesakara...).

Lesakako bidean (Gi-3420) zuloak “petatxoekin” betetzen dituzte eta segituan berriro zuloak. Orain ere badaude zuloak.



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,50
bilera ongi gidatu da	8,50
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,20
Auzotar kopurua	3,40
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,00
Saioa probetxugarria izan al da?	8,00
Egunaren egokitasuna	7,67
Orduaren egokitasuna	7,67
Lekuaren egokitasuna	8,00